

**8/2023 TXOSTENA, APIRILAREN 4KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA.**

GAIA: ERABAKI-PROPOSAMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREAN ETA HARI ATXIKITAKO SEKTORE PUBLIKOA OSATZEN DUTEN GAINERAKO ERAKUNDE GUZTIETAN HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK ONARTZEN DITUENA.

I.- AURREKARIAK.

2023ko martxoaren 14an, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak txostena eskatu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta hari atxikitako sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak onartzen dituen erabaki-proposamenari buruz. Aipatutako irizpideei buruzko dokumentuaren kopia erantsi da. Eskaera Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari zuzendu zaio.

Espedientea prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetu da (erreferentzia: AAAA_ACG_1631/23_11).

II. ESKUMENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a).7 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari eskumena ematen dio hauei buruz nahitaez informatzeko: zirkularrak, jarraibideak eta gomendioak, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak kontratazioaren alorrean proposatutakoak, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren organoren batek proposatu eta kontratazio publikoaren alorreko gaietan nolabaiteko eragina dutenak ere.

Era berean, 27. artikuluko b) letraren lehen gidoiak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari ematen dio eskumena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio organo baten (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila) jarraibideak jasotzen dituen proposamen bat delako, kontratazio publikoan eragiten duena, besteak beste, kontratazio publikoan jarraitu beharreko hizkuntza-irizpideak ezartzen baititu.

Uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 30.2.b) artikuluan adierazitakoaren arabera, Kontratazio Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorri dagokio informatzea Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak kontratazioaren alorrean proposatutako zirkularrei eta gomendioei buruz, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren organoren batek proposatu eta kontratazio publikoaren alorreko gaietan nolabaiteko eragina dutenei buruz ere.

Kontuan hartuta bigarrena onartzea Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Osoko Bilkurari dagokiola eta, 116/2016 Dekretuaren 30. artikuluekin bat, Osoko Bilkurari aurkez dakizkiokela Batzorde Iraunkorriak aztertu ondoren batzorde horren Lehendakaritzaren iritziz Osoko Bilkurari aurkeztu beharrekoak diren gaiak, Osoko Bilkurak izango du txostena

eztabaidatzeko eta, hala badagokio, onartzeko eskumena. Are gehiago, edukiak osoko bilkura horretan dauden kontratazio-organo eta -arlo guztiei eragiten die zuzenean.

Horri jarraikiz, eta aipatutakoaren babesean, txosten hau ematen dugu, aipaturiko arauetan xedatutakoa betetzeko. Txosten hau soil-soilik dagokie proposamenean sektore publikoaren kontratazioaren araubide juridikoari eragiten dioten alderdiei, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honen eskumena kontratazio publikoaren gai propioetara mugatzen baita.

III. – EDUKIA.

Dokumentua honela egituratuta dago:

- Sarrera.
 - Zer dira hizkuntza-irizpideak?
 - Helburu nagusiak.
 - Eragin-eremua.
 - Erabilera normalizatua eta orokorra.
 - Hizkuntza ofizial batean egindako jarduketan baliotasun juridikoa
 - Herritarren hizkuntza-eskubideak eta Administrazioaren obligazioak.
 - Kalitatezko komunikazioa.
 - Komunikazio telematikoa.
 - Diskriminaziorik gabeko hizkuntza.

Sarreraren ondoren, edukia honela banatzen da:

- 1. ardatza: Kudeaketa (6 arlotan banatuta)
 - Euskararen kudeaketa orokorra.
 - Lidergoa.
 - Langileak.
 - Gaitasuna.
 - Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren berri ematea.
 - Hizkuntzari buruzko klausulak.
- 2. ardatza. (2 arlo eta 7 ataletan banatuta)
 - Zerbitzu-hizkuntza.
 - Irudia.
 - Herritarrekiko harremanak.
 - Lan-hizkuntza.
 - Barruko komunikazioak.
 - Kanpo-komunikazioak.
 - Prestakuntza.
 - Baliabide informatikoak.
 - Sortze-hizkuntza.

Kontratazio publikoari buruzko guztia lehen ardatzeko azken atalean jasotzen da: Hizkuntzari buruzko klausulak. Kontratazioari lotutako hizkuntza-irizpideak honako hauek dira:

“Eusko Jaurlaritzak egiten dituen kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, batetik, herritarrei bermatzeko erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza-baldintza berberetan jaso ahal izatea kontratu bidezko jarduerak edo

zerbitzuak eta, bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzeko.

Administrazio-klausula partikularrei eta baldintza teknikoei buruzko agiriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira.

Eusko Jaurlaritzak hizkuntza bien ofizialtasunaren araubidea betearaziko du kontratu publikoetan. Beraz, kasuan-kasuan kontratuaren helburua zein den, halako hizkuntza-betekizunak ezarriko ditu administrazio-klausula partikularren agirietan.

Eusko Jaurlaritzak bermatuko du kontratuaren xedeak betetzen duela bere izaerarengatik eta zerbitzuaren titularra den erakundearen ezaugarriengatik aplikagarria zaion hizkuntza-legeria.

Hizkuntza bien ofizialtasunari lotutako errekerimenduetan, herritarrei arreta ematea eskatzen duten kontratuetan edo zerbitzu bat ematea helburu duten kontratuetan, honako hau bermatu beharko da kontratuaren preskripzio teknikoetan:

- a) Proporzionaltasun-printzipioa bermatuko da, kasu bakoitzaren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera.
- b) Kontratuaren bidez bete behar diren eginkizunei lotuta egongo dira.
- c) Enpresak bere baliabideen edo besteren baliabideen bitartez egiaztatu ahalko ditu. Kontratuaren preskripzio teknikoetan, entitate kontratatzailearen eta kontratistaren arteko harremanetan erabiliko den hizkuntzari buruzko erregulazioa aurreikusiko da.

Herritarrekin harreman zuzena eskatzen duten kontratuetan, hauxe bermatuko da:

- a) Enpresa kontratistak Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-araudia eta honek ezarritako hizkuntza erabiltzeko irizpideak bete beharko ditu zerbitzua ematerakoan, dena delako jarduera edo prestazioa gauzatzekoan. Zehazki, prestazioaren emaitza hizkuntza ofizial bietan emateko gai izan behar du. Alderdi hori kontratuko administrazio-klausula partikularren agirietan egongo da jasota. Enpresak egiaztatu beharko du badituela bere jarduera gauzatzeko behar diren langileak administrazioaren zerbitzura.
- b) Zerbitzua ematen duenean, kontratista saiaturiko da herritarrekiko ahozko harremanak euskaraz izaten. Horretarako, enpresa kontratistan zerbitzua ematen ari den pertsonak euskaraz ekingo dio elkarrizketari, eta, ondoren, erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan jarraituko du. Zerbitzuaren erabiltzaileak zer hizkuntza aukeratu duen, hizkuntza horretan idatziko ditu enpresa kontratistak zerbitzua emateko behar diren ziurtagiriak, txartelak, oharak eta beste idazki batzuk.

Hizkuntza-baldintzen betetze-mailaren jarraipena egitea kontratazio-organoari dagokio, hark izendatutako kontratuaren arduradunaren figuraren bitartez. Hizkuntza-baldintzak urratzen badira, kontratuak ez betetzeagatik araudiak dioena aplikatuko da.

Eusko Jaurlaritzak erabaki ahalko du hirugarrenei eskatzen dizkieten azterlanak, proiektuak eta antzeko lanak euskaraz, behintzat, idatzita egotea, salbu eta, xedea dela eta, nahitaez gaztelaniaz idatzi behar direnean. Eskakizun hori jasota egon beharko da onartzen diren administrazio-kontratuaren baldintza-agirietan.

Hizkuntza-klausulen betetze-mailaren jarraipen egokia egiteko, komenigarria da erakunde bakoitzak jarraipen-sistema bat ezartzea, betiere bere ezaugarrien arabera.”

Kontratu publikoen atal zehatzaz gain, bigarren ardatzean kontratazio publikoari buruzko aipamen labur batzuk daude. Ia erreferentzia horiek guztiek kontratazio-pleguetan sartu beharreko klausulak aipatzen dituzte. Beraz, bigarren ardatzean kontratazioari buruz egiten diren aipamenak aipatuko ditugu, bai zerbitzu-hizkuntzen atalean, bai lan-hizkuntzen atalean.

Zerbitzu-hizkuntzak arloko Irudia atalaren barruan, Iragarkiak eta publizitatea:

“Publizitate kanpainak kontratatzen direnean, bereziki zainduko da euskarazko leloak euskaraz sortuak direla, eta ez direla gaztelaniazko leloaren itzulpen hutsa. Kontrataziorako baldintza-pleguetan baldintza hori berariaz jasoko da.”

Zerbitzu-hizkuntzak arloko Irudia atalaren barruan, Ekitaldi publikoak azpiatala:

“Ekitaldia kanpoko enpresa batek antolatu behar duenean, kontrataziorako baldintza-pleguetan aurretik aipatutako irizpide horiek jasoko dira. Kontratazioa formalizatzean, bertaratutako jendearekin harreman zuzena duten langileek (aretokoak, harrerakoak eta zerbitzuetakoak) beren lana euskaraz ere egiteko gaitasuna dutela bermatuko da.”

Lan-hizkuntzak arloaren barruan, Barne-komunikazioak atalean, Lan-bilerak azpiatala:

“Sail bateko zuzendariak zerbitzu zuzendaritzetara edo beste erakundeetan funtzio bera betetzen duten organoetara bidaltzen dituzten agiriak euskaraz izatea sustatuko da (kontratu txikien beharra justifikatzeko memoriak, baimen-eskaerak, etab.)

Zuzendaritza bakoitzean, administrazio-prozeduretako idazkiak euskaraz egitea sustatuko da (dirulaguntzak, kontratazioak, etab.)”

Lan-hizkuntzak arloaren barruan, Baliabide informatikoak atala:

“Software berriren bat garatzen denean, ele bietan egiteko eskatuko zaio hornitzaileari. Kontratazio-pleguetan baldintza gisa jasoko da hornitzaileak gaitasuna izan behar duela bere produktuak ele bietan sortzeko.”

Kontratazio publikoan hizkuntza-irizpideak sartzeari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 1.3 artikulua, (aurrerantzean, SPKL), honako hau xedatzen du: “Kontratazio publiko orotan, zeharkako eta aginduzko eran, irizpide sozial eta ingurumenekoak sartuko dira, kontratuaren objektuarekin zerikusia duten bitartean” (SPKLaren bidez egiten da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora).

SPKLaren 76.2 artikulua, oinarritzat ez denak, honako hau ezartzen du: “Kontratazio-organoei aukera izango dute lehiatzaileei edo lizitatzailaiek eskatzeko, baldintza-agirietan horrela jasota utzi badute, beren kaudimena edo –hala badagokio– sailkapena egiaztatzeaz gain konpromisoa har dezatela kontratua egikaritzeko behar diren giza bitartekoak edo bitarteko materialak jartzeko”. Artikulu berean, 3. apartatuan, era honetan mugatzen du: “Kontratazioaren sailkapenerako kaudimen-baldintza gehigarri moduan bitarteko pertsonal edo materialak atxikitzea zentzuz, justifikatuta eta entitatearekiko eta kontratuaren izaerarekiko eta ezaugarriekiko modu proportzionalean egingo da, halako moduz non ez duen mugatuko enpresek lizitazioan parte har dezatela”.

SPKLaren 86.1 artikuluan 1. apartatuak ezartzen duenez, kontratu baterako ekonomia- edo finantza- kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko, kontratazio-organoak lege honen 87. artikulutik 91. artikulura aurreikusitako dokumentuen artean zehaztutakoak aurkeztu beharko dira. Hala ere, artikulua horietan ez dira aipatzen hizkuntza-izaerako kontratuak egiteko gaitasun-baldintzak.

Halaber, SPKLak honako hau dio 122.2 artikuluan: “Administrazio-klausula partikularren agirian, honako hauek jasoko dira: kontratuaren kaudimen- eta adjudikazio-irizpideak; kaudimen-irizpide eta adjudikazio-irizpide moduan edo egikaritzeko baldintza berezi moduan ezartzen diren gizarte-baldintzak, lan-baldintzak eta ingurumen-baldintzak”. Era berean, 125. eta 126. artikuluek aukera ematen dute gizarte-, lan- eta ingurumen-inpaktua preskripzio teknikoetan sartzeko, baldin eta kontratuaren objektuari lotuta badaude eta haren balioarekiko eta helburuekiko proportzioa badute.

SPKLren 145. artikulua, kalitate/prezio edo kostu/eraginkortasun erlazio onena zehaztu behar duten kontratuak esleitzeko irizpideei buruzkoak, ezartzen du kontratuaren xedearekin lotuta dauden ingurumen- edo gizarte-alderdiak jaso ahal izango dituztela, hala nola ezaugarri sozialak, desgaitasuna duten edo gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea, genero-berdintasunerako planak, kontziliazioa, enpleguaren egonkortasuna, eta abar. Aurrerago, adjudikazio-irizpidetzat onartzen da kontratua egikaritu behar duten eta hari atxikita dauden langileen antolaketa, kualifikazioa eta esperientzia, baldin eta langile horien kalitateak eragin nabarmena izan badezake hobeki egikaritzeko. Azkenik, artikulua horren 6. apartatuak zehazten du adjudikazio-irizpide bat kontratuaren xedeari lotuta dagoela haren arabera egin beharreko prestazioak aipatzen edo integratzen direnean; hortik ondorioztatzen da hizkuntza-baldintza jakin batzuk baloratzen badira, prestazioaren exekuzioan egiaztatu ahal izango direla, nahiz eta, batzuetan, ez dakarten hura egiaztatzeko ahozko edo idatzizko alderdirik.

Bestalde, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauak, kontratazio publikoari buruzkoak, honako hau ezartzen du 70. artikuluan: *“Botere adjudikatzailiek kontratuaren exekuzio-baldintza bereziak ezarri ahal izango dituzte, baldin eta kontratuaren objektuari lotuta badaude, 67. artikuluko 3. apartatuak zehazten duenaren arabera, eta lizitazio-deialdian edo kontratazioaren baldintza-agirietan zehazten badira. Aipatutako baldintzek askotariko kontsiderazioak jaso ahal izango dituzte: ekonomikoak, berrikuntzakoak, ingurumenekoak, sozialak edo enpleguak”*.

Era berean, Zuzentarauaren 104. kontuan hartuzkoak hau xedatzen du: *“kontratu bat gauzatzeko baldintzen helburua betearazpen horri buruzko betekizun espezifikoak ezartzea da. Kontratuak esleitzeko irizpideekin gertatzen ez den bezala, horiek baitira eskaintzen kalitatearen konparaziozko ebaluazioa egiteko oinarria, kontratu bat gauzatzeko baldintzak betekizun objektibo finkoak dira, eskaintzen ebaluazioan eragiten ez dutenak”*, eta honako hau aldarrikatzen du: *“kontratu bat gauzatzeko baldintzek bateragarriak izan behar dute zuzentarau honekin, baldin eta zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak ez badira eta kontratuaren objektuarekin lotuta badaude”*.

Era beran, SPKLaren 202.1 artikuluan hau aurreikusten da: *“Kontratazio-organoek zilegi izango dute baldintza bereziak ezartzea kontratua egikaritzeko, baldin eta baldintza horiek lotuta badaude kontratuaren objektuarekin [...] ez badira zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak, Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarri badira eta hala lizitazio-iragarkian nola baldintza-agirietan*

adierazten badira". Bigarren apartatuan zehazten duenez, *"exekuzio-baldintza horiek, bereziki, kontsiderazio ekonomikoari buruzkoak, berrikuntzari edo ingurumenari lotuak edo kontsiderazio sozialei buruzkoak izan ahalko dira"*.

Eta apartatu horren hirugarren paragrafoan zehazten diren kontsiderazio "sozialen nahiz enpleguari buruzkoen" artean, badira zenbait, zerrenda itxia ez bada ere, prestazioa ematen duten pertsonen gizarte- eta lan-eremuarekin soilik zerikusia dutenak.

Puntu honetara iritsita, gogora ekarri behar da Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiaren (KEAAN) doktrina, hizkuntza-arloko exekuzio-baldintza bereziak sartzeko aukerari buruzkoa, zeinak uztailaren 31ko 897/2019 eta apirilaren 23ko 563/2020 ebazpenetan jasotzen baitira: *"Egia da balizko exekuzio-baldintzen zerrenda, baita adjudikazio-irizpide kualitatiboena ere, generikoa dela eta azalpen hutsa ematea duela helburu, eta, beraz, horretarako ezarritako baldintza orokorrak betetzen dituzten antzeko beste baldintza edo irizpide 'sozial' batzuk ere ezar daitezkeela. Hala ere, ezarritako esparru orokorrak beti aipatzen ditu 'kontsiderazio ekonomikoak edo berrikuntzarekin zerikusia dutenak, ingurumenekoak, sozialak edo enpleguari lotutakoak', eta horrek zera ondorioztatzen garamatza: Europako araudiak eta araudi nazionalak ez dutela aurreikusten, eta, beraz, ez dutela ahalbidetzen, kontratazio publikoaren barruan, aipatutako zuzentarauaren 70. artikuluan aipatutakoez bestelako gaiari edo eremuei buruzko exekuzio-baldintza bereziak ezartzea, ezta hizkuntza bat edo bestea erabiltzea ere, baina, jakina, horrek ez du esan nahi kontratuaren esleipenduna ez dagoenik behartuta Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen hizkuntza-araudia errespetatzera eta betetzera"*.

Beraz, KEAANaren iritziz, ez Europako ez Estatuko araudiek ez dute aurreikusten hizkuntzari buruzko exekuzio-baldintza bereziak ezartzeko aukera, baina horrek ez du eragozten indarreko araudia betetzea, eta, beraz, hori preskripzio teknikoetan eta pleguak egitean egin behar da, besteak beste.

Gure autonomia-erkidegoko araudiari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18. artikulua hau xedatzen du: *"Entitate bakoitzak 17. atalean ezarritako normalizazio-helburuak betetzeko erabiliko duen hizkuntz politika eta bere nondik norako eta jarraibide nagusiak agertuko dira euskararen erabilera normalizatzeko planetan. Bertan, gutxienez, honako hauek jasoko dira:*

d) kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen".

Horri dagokionez, nahiz eta administrazioek herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu behar dituzten, horrek ez du esan nahi kontratisten egoera haien egoeraren parekoa denik. Aipatzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 66/2023 epaia, 2023ko otsailaren 17koa, 131/2022 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan emana. Epaia horren laugarren oinarrian, epaiaren epaitza hau da: enpresa pribatu bateko langileei ezin zaizkie ezarri enplegatu publikoari hizkuntza-eskakizunei dagokienez ezartzen zaizkien eskakizun berberak.

Horretarako, urriaren 6ko 417/2015 epaian (723/2014 errek.) adierazitakoa argudiatzen du: *"... sala eta atal honen irizpidea da kontratistek administrazio-kontratazioko figura guztietan hizkuntza koofizialak erabiltzeko irizpideak sartzeko (are gehiago aurkaratutako arauditik ondorioztatzen den*

orokortasunarekin eta intentsitatearekin) urratu egiten duela aipatutako oinarrizko legeria, jarraian zerrendatzen diren ikuspegi hauetatik begiratuta:

1.-) SPKLaren testu bateginaren 62.2 artikulua ezartzen duenaren arabera, "enpresaburuak bete behar dituen gutxieneko kaudimen-baldintzak eta horiek egiaztatzeko behar den dokumentazioa lizitazio-iragarkian adieraziko dira, eta kontratuaren baldintza-agirian zehaztu; helburuari lotuak eta proportzionalak izan behar dute".

Arau hori ez da behar bezala aplikatzen udal-araudiak, baldintza-agirietan sartu beharreko "zerbitzu-baldintzen" bitartez (euskaraz edo bi hizkuntza koofizialetan) eskakizun hori kaudimen teknikoaren esparruan kokatu eta enplegatuei hizkuntza-gaitasunaren eskakizunak ezartzen dizkienean, eta ahalbidetzen duenean "izatez administrazio kontratatzaileari eskatzen zaizkienean" baliokideak —11. eta 12. artikulua— eskatzea, probak eta egiaztapenak eginda, azken finean lehiatzaileen eta lizitatzaileen hizkuntza-araubidea udal-administrazioaren beraren hizkuntza-araubidearekin parekatuz.

Aurreikuspen hori eta araudian zehar eta eranskinetan duen garapena ez dira bateragarriak kontratazio publikoaren araubide juridikoak berekin dakartzan eskakizun teknikoaren xede mugatu eta zehatzarekin, eta ez dute ahalbidetzen euskal hizkuntza koofizialaren esparruan garatuko lizitatekeen gaitasun teknikorik (...)

4.-) Alderdi demandatuak argudio gisa erabiltzen duen hizkuntzaren erabileraren normalizazioaren tituluak ere ez luke justifikatuko halako eskakizunak ezartzea enpresa lizitatzailerentzat eta, zeharka, beren langileentzat, lehia-prozesuetan parte hartuz.

Lehen aipatu dugun ekainaren 26ko 82/1986 KAEak adierazi zuenez, "... ez dago eragozpenik Euskal Autonomia Erkidegoan herri-administrazioari atxikitako langileak euskalduntzeko helburuari buruz, langile horiek euskara ere menderatzeko aukera gisa ulertuta —gaztelaniari kalterik egin gabe—. Eta, ildo horretan, herritarrei hizkuntza ofizialen erabilera bermatzeko betebeharrarekin eta hizkuntza horien ezagutza eta erabilera babestu eta sustatzeko betebeharrarekin bat etorritik, ez dago inolako eragozpenik botere publikoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, bi hizkuntzen ezagutza eskatzeko funtzionario-plaza jakin batzuetara iristeko, edo, oro har, besteak beste (berariaz aurreikusten den bezala) haien ezagutza-maila merituzat hartzeko: hori guztia EKren 14. eta 23. artikuluetan xedatutakoa errespetatuz egin behar dela ulertuta, eta dagokion lege-aginduaren aplikazioan diskriminaziorik gertatu gabe. Azken batean, euskararen erabilerak behar diren baliabideak jartzea dakar, eta, horien artean, euskal hiztunak egotea, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan, bai Estatuaren administrazio periferikoan, auzitegi honek abuztuaren 5ean emandako 76/1983 epaian adierazitako moduan, 'erkidegoko herritarrek euskara erabiltzeko duten eskubidea bermatzeko', eta hirugarren xedapen gehigarriak artikulua horri buruz egiten duen berariazko aurreikuspenari dagokionez. Beraz, printzipioz, ezin da funtzio publikora sartzeari dagokion eskakizun hori hedatu, eta, zeharka, obra eta zerbitzuen etorkizuneko kontratisten eta adjudikaziodunen zerbitzura dauden langile guztiei aplikatu, ez eta haiei ere zuzenean. Aitzitik, kontratua esleitzeko deialdi horietan parte hartzen duten giza elementuek 1982ko Normalizazio Legeak administrazioari esleitutako estatutua eta hizkuntza aukeratzeko askatasuna dituzte —nahiz eta harreman bereziko loturak ezarri Administrazioarekin—, eta ez, ordea, berak botere publikoei ematen diena, eta haren konstituzio-interpretazioa".

Ildo horretan, hizkuntza-arloan indarrean dagoen araudia betetzea administrazio publikoaren erantzukizuna da, eta haiek ezarriko dute nola bermatuko den kontratu bakoitzaren administrazio-klausula partikularren agirietan jasotako hizkuntza-irizpideak betetzen direla. Beraz, hizkuntza-irizpideak betetzeko, kontratua arautzen duten pleguetan jaso behar dira horien ondorioz kontratistei eskatzen zaizkien betebeharrak zehatzak.

Horrenbestez, kontratistek, hizkuntza-araudiaz gain, beren kontratu espezifikorako ezarritako baldintzak ere bete beharko dituzte, betiere baldintza horiek kontratuaren xedearekin lotura zuzena badute, baina ez erakunde horien hizkuntza-irizpideekin.

Gogora ekarri behar da Auzitegi Gorenaren otsailaren 14ko 250/2017 Epaia, 464/2015 kasazio-errekurtsoan emana, administrazio-kontratueterako hizkuntza-betekizunak arautzen dituen Lasarte-Oriako udal-ordenantza bati buruz. Auzitegiak ulertzen du gai honetan jarduketa legitimoko esparru bat dagoela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1987 Dekretuaren 18.d) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Epaiak uste du Ordenantzak 86/1997 Dekretuak eskaintzen dion estaldura duen alderdi oso zehatz bat arautzen duela (zerbitzuak kudeatzeko kontratu mota jakin bat kontratatzeko hizkuntza-normalizaziorako neurri batzuk). Auzitegi Gorenaren iritziz, udalak, azaldutako araudi autonomikotik, ahalmena du normalizazio-neurriak hartzeko, eta neurri horiek hartu behar ditu zerbitzuak emateko moduari dagokionez. Neurri horiek zuzenean ematen badira, enplegu publikoaren araubideari eragingo lioke, baina kudeaketa zeharkakoa bada, kontratuaren esleipena lortzeko eskakizunei eragingo lieke.

Garrantzitsua da Auzitegi Gorenaren erabaki hori, kontratazio-araubidearen gaineko eskumenaren aipamena baztertzeko baitu, hizkuntza-normalizazioari dagokiona nagusiz hartuta. Beraz, arau autonomikoa izango da udal ordenantzaren legezkotasun-parametroa, eta ordenantza horrek, dena den, proportzionaltasun-printzipioaren mugak errespetatu beharko ditu kontratazioaren xede diren zerbitzu publikoetan hizkuntza koofiziala jakiteko eskakizun zehatzaren justifikazioan.

Adierazitako guztiagatik, hizkuntza-klausulak arloaren barruan, behean adierazitako atalen idazketa aldatzea gomendatzen da, enpresa kontratistaren plantillan adierazitakoa betetzeko langile gaituak edo prestuak dauden kontuan hartuta:

1. *“Kontratuaren preskripzio teknikoetan, entitate kontratatzailaren eta kontratistaren arteko harremanetan erabiliko den hizkuntzari buruzko erregulazioa aurreikusiko da”.*
2. *Enpresak egiaztatu beharko du badituela bere jarduera gauzatzeko behar diren langileak administrazioaren zerbitzura.*

Era berean, Laneko hizkuntzak atalaren barruan, Baliabide informatikoak atalean, honako hauei buruzko idazketa aldatzea gomendatzen da: *“(…) Kontratazio pleguetan baldintza gisa jasoko da hornitzaileak gaitasuna izan behar duela bere produktuak ele bietan sortzeko”*, izan ere, zehaztapen edo preskripzio tekniko bat izango litzateke, baldintza bat baino gehiago.

Bestalde, erabaki-proposamenaren testuan argitu beharko litzateke Gobernu Kontseiluak 2021eko apirilaren 13an onartutako EAEko hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak indarrean egoteari utziko dioten, eta txosten honen xede den erabaki-proposamenean jasotako irizpideek ordeztuko dituzten edo aldi berean aplikatuko diren.

Azkenik, 1.0.6 apartatuan, hizkuntza-klausulei buruzkoan, ezartzen da plegu administratibo eta teknikoak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta argitaratuko direla, baina ez du zehazten nola gauzatu den itzulpen ofiziala —IZOren edo beste baliabide baten bidez— kontuan hartuta zenbait plegu teknikoak duten konplexutasuna gaztelaniaz idatzi dituzten teknikariek euskarara itzultzeko duten hizkuntza-gaitasuna gaintzen duela. Era berean, ez da aurreikusten jarraibide horiek aplikatzeak zeharka berekin dakarrela preskripzio teknikoaren pleguen itzulpen ofizialak egingo dituzten teknikariak kontratatzeko gastua.

IV.- ONDORIOA

Azaldutako guztiagatik, ALDEKO TXOSTENA ematen dugu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta hari atxikitako sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak onartzen dituen erabaki-proposamenaren edukiari buruz, txosten honetan jasotako jarraibide eta gomendioetara egokitu ondoren.